SORGINEN BIDEA EPERLANDAKO AKELARRERA-I[1]

Muxikako Ibarruri auzoko Txomin Artetxek kontatuta 1970an

Muniketa deituriko parajeko baserri batean bi ahizpa ezkongabe bizi ei ziren. Laguntzeko morroi bat zuten.

Ahizpa biak gau-gauean gelditzen ei ziren ezkaratzean morroia oheratutakoan.

Beti-beti andreak zer egiten ote zuen jakingura zuen mutilak eta halako batean zer egiten du? Gabon esan eta ohera doalakoan, ate ostean ostendu.

Ahizpa biak, morroian gomuta barik, suteko hautsa hartu eta ipurdia igurzten ikusi ei zituen ondokoa esaten zuten bitartean:

Lainoperik lainope
Sasi guztien gainetik,
Eperlandako landara.

Aurrekoa amaitu esaten eta han joan ei ziren tximiniatik gora.

Mutilak hau ikusirik ezkaratzera sartu, eta ahizpa biak egin zuten modu berean, ipurdia suteko hautsez igurtzi eta hanka bat zizeilura lotuta zuelarik, hauxe esan zuen:

Sasiperik sasipe,
Laino guztien gainetik,
Eperlandako landara.

Bat-batean han zihoan zizeilu eta guzti sasiperik sasipe dena urruturik. Azkenez heldu ei zen Eperlandako landara.

Han zeuden hainbat atso, bere ugazaba-ahizpa biak ere bai.

Bertan egiten ari ziren ospakizunetako bat biltzarraren erdian zegoen ikatzari musua ematea ei zetzan. Bere txanda heldu zenean, morroia ere agertu zen ikatzari musua ematera. Animalia-irudi hura ikusirik ondokoa esan ei zuen ozenki:

"*Jesus, hau zikina*".

Jesusen izena entzun zutenean, han ez ei zen lotu sorginik bat ere: denak eman ei zioten ihesari, bakoitzak ahal zuen lekutik. Gure morroia bakar-bakarrik gelditu ei zen zizeilua hankari lotuta.

Azkenean etxera itzuli izan behar ei zuen zizeilua lepoan hartuta.

(1) Ajangizek, Ibarruritik oso gertu, Eperlanda deituriko lekua dago. Bertan, sorginek, akelarreak egiten omen zituzten.

Ajangizko Eperlanda deituriko mendi gailurra.

Joxe Miel Barandiaran
Obras Completas Tomo II
Eusko-Folklore
Editorial La Gran Enciclopedia Vasca
Bilbao, 1973